

Prozesu Sortzaile Plastikoen erakusketea egon da Igorren

12. orrialdea

Gabonetako lehiaketetako sariak banandu dira

Hainbat dira Gabonetan antolatzen diren lehiaketak. Gurean, Areatzako argazki lehiaketea, Sabin Intxaurragari gutunak eta Zeanuriko II. Ipuinen Lehiaketearen sariak emon dira. Lemoako Gabonetako Haur eta Gazteen ipuin lehiaketea zabalik dago oraindino. 13. orrialdea



San Silbestre lasterketak egin ziran Igorre eta Lemoan

11. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

177

2013ko urtailaren 3a
hamabostekaria
www.begitu.org

Konposta egiten hasi da Arratia

Materia organikoa birziklatu eta konpost bihurtzeko hainbat ekimen ipini ditue martxan erakunde eta herritarrek.

Izan be, ekologistak eta erakundeak ados dagoz erretzeak sortzean dituan kalteen gainean. Europak 2008/98 Zuzentarauan hondakin organikoak konpost egitera behar izan eban eta mankomunitadea hasi da sukaldatu bako hondakin organikoak batzean bosgarren edukiontzia edo edukiontzi marroian. Boluntarioak baino ez dabe erabiliko edukiontzi hori, baina jentea parte hartzean animetako kanpaina bat abiatu dau Araratiako Udalen Mankomunitateak eta beste ekimenen artean eskola-umeai zuzendutako lehiaketa bat ipini dau martxan.

Materia organikoa eta plastikoak erretzean dioxina eta furanoak sortzean dira. Honeek sano partikula toxikoak dira jentearen osasunerako zein ingurumenerako. Konposta egitean, kutsadura hori ebitau eta lurra ontzeko produktua sortzean da. Gurean "pinuak guztiz erosi autako lurak erreku peretako balio ahal dauana" Ekologistak Martxaneko Roberto Galdosen ustez.

Igorreko Ignazio Zubizarreta ikastetxean konposta egiten hasi dira. Izan be, eskoleak sortzean dauan organiko guztia, ikastetxean bertan ezarri dan konpost gunean kudeatuko dabe. 7. 8. eta 9. orrialdeak



Konposta.

BEDIA

Akordioa lortu dabe Incoesan

Incoesako beharginak eta enpresek akordio bat lortu eban abenduaren 28an eta kaleratutako beharginak euren beharretara bueltauko dira. Gainera, lan hitzarmenerako negoziazioetan be hasi dira.

Enpresek 16 behargin kaleratu zituan eta beharginak mobilizazioak egin zituen 2012ko abenduan. 5. orrialdea



ARRATIA

2013rako aurrekontua onartu da Arratiako Udalen Mankomunitatean

2013rako aurrekontua "zerbitzu guztiak bermatuko dauan aurrekontua" da Josune Gorospe mankomunitadeko presidentearen arabera eta EAJ-PNVren aldeko 10 botogaz onartu zan abenduaren 26an egindako Osoko Bilkuran. 5. orrialdea

E P A
Galdakao
www.epagaldakao.com
Matrikuletako epea, urtalia osoa.
Tlfn. 94 456 60 98
Helduen heziketa
E.P.A.
IGORRE: Elejalde 22. Eleizako lokaletan

ARRATIA

Gabonetako ekintzak

Gabonak bere azkenetan dagoz baina oraindino badago zer egin, zer entzun eta zer ikusi gurean. Herri gehienetan programaturakoa burutu bada be, Errege Magoak helduko dira Bedia Igorre eta Lemoara eta Lemoako eta Areatzako Gaztetxeetan be badago nondik ibili. Hilaren 6an barriz, Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoak agur esango dabe 40 urteko ibilbidearen ostean, non eta Igorren. 6. orrialdea



IGITIE

ONDO ETORRI

Ondo etorri, irakurle, hemendik aurrera IGITIEren saila izango dan honetara. Hamabostean behin txoko honetan topauko dozuez ortuko sasoiko lanen azalpenak, sukaldeko erreze-tak, elikadura subiranotasuna-ren inguruko informazioa, eta mobilizazio, prestakuntza edo beste era bateko ekintzetarako deialdiak.

Hasteko, ezinbestekoa deritxagu geure burua aurkezteari.

Gaur egun, baserritarrak gero eta zaharragoak dira, eta gazteoi, barriz, lanbide honetan hasteko, zenbatuezinako zailtasunak ipinten deuskuez. Orain daukagun nekazaritza ereduak merkantzia bihurtu ditu elikagaiak eta elikagaien inguruko jarduerak guztiak,

eta horrek suntsitu egiten dau merkadu lokalaren oinarri kulturala: hartu-emon zuzena, herrien jakintza, elikadura burujabetza, autosufizientzia, etab.

Hori ikusita, Arratiako hainbat baserritar eta baserriratze prozesuan gagozan hainbat lagun alkatu gara, eta IGITIE sortu dogu. Holan, produktoreak, oinarriko puntu batzuetan bat eginik alkarlanean hasi gara:

ELIKADURA SUBIRAUTZA
BASERRIRATZEA
LOKALA
AGROEKOLOGIKOA
IZAERA KOLEKTIBOA
HEZKUNTZEA ETA PRESTAKUNTZEA
ALDAKETA SOZIALA
ASANBLADEA

Elikadura guztiontzat eskuragarri egotea oinarriko eskubidea da

Elikagaien produkzioak eta elikagai horreen konsumitzailak ahal danik eta hurren egon behar dabe, aztarna ekologikoa murriztuteko eta baita auzo eta herritarren arteko hartu-emonak indartzeko eta konfiantzea bul-tzatzeko be.

Guzti horretaz konbenziduta gagoz, baina ekimen honek aurrera egiteko herritarren laguntzea beharko dau. Horregaitik antolatu dira topaketa bi elikadura subirautzaren alde, eta horregaitik ipini dira martxan mobimentu zabal eta herritar honen barruan hainbeste talde: prestakuntzearen taldea, jantokien taldea, lur-boltsen taldea eta merkaturatzea lantzen dauan taldea. Hori dala

eta, behar egiteko prest dagozan guztiak konbidau gura doguz, mobimentu honetan parte hartu daien eta ilusinoz eta umorez

aldarrikapen guzti honeen gizar-teratzean lagundu daien.

Bidean alkar ikusiko dogu-lakoan...

IGITIE

Baserritar. Agro Ekologikoak

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
S.O.S. DEIAK 112

Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara
Abenduaren 31tik urtailaren 6ra

Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g
Tel.: 94 631 39 50

22:00etatik 09:00etara

Guarrobena. Amorebieta-Etxano.

Urtailaren 7tik 13ra

Badiola. Artea. Herriko Plaza 7
Tel.: 94 631 73 11

22:00etatik 09:00etara

Goiria-Montoya. Amorebieta-Etxano.

Urtailaren 14tik 20ra

N. Arrieta Bereciartua. Lemoa. Atutxa Sailburua 1
Tel.: 94 631 30 18

22:00etatik 09:00etara

Melero. Amorebieta-Etxano.
Zeberioak ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan**22:00etatik 09:00etara**

Chicote. Kareaga Goikoa 50. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea

94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Trenak

Euskotren 902 543 210

Bizkaibus* 902 222 265

Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengo 22:15ean

Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Artea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 15:30 eta 20:00.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Artea

Lanegunetan: 05:45, 14:15 eta 18:45.

Zapatuetan ez dago 05:45eko.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 09:15, 11:15, 13:15 eta 17:45.

Jaiegunetan (Arrigorriagaraino): 08:15, 11:15, 14:15, 17:15 eta 20:15.

Bilbo-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan: 08:15, 10:15, 12:15 eta 16:45ean.

Jaiegunetan (Arrigorriagatik): 10:40, 13:40, 16:40 eta 19:40ean.

La Union* 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandioak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandioak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandioak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioak 10:30ean urtetan dau

Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau

Gasteizetik. Otxandioak ez dago.



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

www.begitu.org

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Kudeatzailea: Inigo Iruarrizaga.

Erredakzino taldea: Urtzi Barrenetxea, Julen Bilbao, Ainhoa Duñabeitia, Aitor Erdozia, Clara Luja Azpiri, Cristina Ruiz eta Irati Urien.

Maketazinoa: Inigo Iruarrizaga.

Publizidadea: Inigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: Maria Rodriguez eta Pablo Rodriguez (Lemoa eta Bedia), Julen Eskalante eta Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte eta Eneko Iriondo (Dima), Alaitz Ozerinjuregi eta Iratiz Sagarna (Igorre) eta Peio Murgoitio (Arantzazu, Artea eta Ubide).

Tiradea: 6.600 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

Ale kopurua 6.600 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

Babesleak:



Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundutakoa



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura



bbk

ZEURE BERBEA

Zabor gizartea

Hori da garana. Dendetako eta bankuetako ateetan dirua eskatzen dauan pertsona ikusten dogunean beste aldera begiratu ten dogulako.

Atzerritarrak beharra kentzean deuskuela eta diru-laguntzak eta babestutako pisu guztiak emoten deusezala esaten jarraituten dogu, ijitoak itxura txarra daukiela eta ekialdetik etorritako personak lapurretan etorri dirala.

Gure bizitza hutsetan alai jarraituten dogu hurrengo oporretan pentsetan senideak eta lagunak langabezian eta txarto pasetan dagozan bitartean. Mozkortzen jarraituten dogu eta erropa eta auto onenak erosten doguz auzokidea etxetik kaleratzen daben bitartean eta mobidu be ez gara egiten.

Alboko enpresan behargin guztiak kaleratuak izan dira eta ez jaku inporta edo ondoko herriko enpresa baten EREa jarri deusez langile guztiak eragiten deusena. Zuk lana euki bitartean, ze inporta besteak!

Ez jaku inporta Abiadura Handiko Trenerako ereigi daben biaduktua azpitik pasatzerakoan botatuko baserria ikustea.

Zabor gizarte bat gara, Mc Donaldsen edo Telepizza antzeko leketan zarama jaten dogulako, baseritarrak baserriak ixten dituen bitartean.

Gizarte gaixo bat gara kapitalismoak hiltzen jarraituten dauan bitartean, guk telebistako mandoa eskuetan jarraituten dogu beste leku batera begira.

XABIER GUTIERREZ

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Alozo



"Zelan zabiz? Alozo esan behar..." edo "Alozo-modu zabiz?" modukoak ia ez dira entzuten gaurko gazteen artean. Azaldu beharko jakie bada zer dan alozo. Ondo, ederto, polito, dezente esan gura dau. Persona nagusien artean sarri entzun arren, gero eta gitxiago erabilten dogu. Alozo edo alazo, alozoko edo alazoko, bietara, esan leiteke. Aiko hemezkan adibide batzuk: "Alozo gelditu da egin dozun beharra"; "Alozoko laguna topau dau horrek!" (zentzu ironikoan be izan ahal da); "Gaur ez naz alozo sentiduten"; edo, argazkia ikusita, "Alozo pasau doguz bakazinoak".

ERETXIA

Errespetua eta kontzientzia

Orain dala urte batzuk, laneko segurtasunaren gaineko eskola baten nengoala, irakasleak behin eta barriro errepikatzen euskun gauza bat, itxura baten, agirikoa eta begibistakoa zan gauza bat: ezin dala normalizat hartu beharlekuan edo beharrez zagozala hiltzea. Egia zan, jentea hil egiten zan beharrez, eta oraindino be hil egiten da. Eta egia da, gizartea tristetu egiten da, baina onartuta dauka gauzak holan dirala.

2011ko abuztuan, agur esan behar izan geuntsan Eneko Zamalloari. Goiz baten, beste askotan lez, arineketan egiten urten eban. Azken aldia izan zan. Hainbat egunean negar egin eta buruari bueltaka ibili ostean, ondorio bat atera neban: ezin da inor hil kirola egitearren. Orain dala egun batzuk, gauza bera etorri jatan burura kotxe batek Iñaki Lejarreta zapaldu ebanean bizikletan entrenetan ebilela.

Errepidea edo kaminoa mundu arrotza da: asfaltozko kilometro eta kilometroak, kotxez eta kamioiez beteta, eta azeleragailuan eta kronometroan oinarritutako kultura hori. Kotxea hartzean dogunean, joan behar dogula pentsetan dogu, eta ez gara konturatzen garrantzitsuena hiltzea dala. Gidatzen dogunean, aurrera egitea baino ez daukagu buruan, sekula ez gelditzea. Bolantean gagozanean, ahalik eta arinen hiltzeako helburu hori oztopatzen ahalegintzen diran mekanismo automatik baino ez doguz ikusten. Horrek estresa eragiten deusku, ukondoko eta bultzakada birtualez beteriko gerrea. Benetako purustada eta irainez betetako burrukea.

Oihan horretan, piezarik ahulenetakoa txirindularia da. Ez dauka babesik eta, beraz, istripuren bat badauka, aukera gitxi dauka onik urteteko. Gizarte moderno baten gagoz, eta gizarte horretan emoten dau oinarri-oinarriko elementutzat



IZKANDER FERNANDEZ

Eneko Zamalloa Memoriala lasterketearen antolatzaileetako

hartzean dirala sostenibildadea eta kirola. Baina, halanda be, gizarte horretan heziketa-balore, bitarteko eta espazio batzuen faltea sentiduten dogu, hain zuzen be, gitxieneko errespetu eta segurtasuna bermatzea bilatzen daben balore, bitarteko eta espazioena.

Errespetuak baino ez gaitu bide onean ipiniko. Errespetua izanda, kotxea hartzean dogunean, errepidea konpartiduteko leku bat dala pentsauko dogu. Arin hiltzea barik sano hiltzea dala inportantea pentsauko dogu. Besteai be bidea erreztu behar deusezula pentsauko dogu, beste horreek guri eraso eta traba egiteko dagozala pentsau beharrez.

Eta, hara nondik, neu be horrezaz guztiak konturatu nintzan bolantearen orde manillarra hartu nebanean. Bat-batean, desagertu egiten da motorrak eta airbagak emoten daben konfiantzea. Orain, bat-batean, kotxea gidatzen nabilela txirindulari bat ikusten dodanean, alarma guztiak iziotuten dira: aurreratze distantzia, ziklistea bildurtu leiken maniobra arrarorik ez, errespetua.

Zalantza barik, kaminoa kirola egiteko erabili gura dogunok euki behar dogu jokabiderik ereduariena. Dana egin behar dogu ondo, gizabidez jokatu eta eredu garri izan behar dogu, auto-gidariak gure bide berean dagozala sentidu daien.

Lemoan, orain dala urtebetetik hona, Eneko Zamalloa laguna omentzen dogu, eta omenaldi horrek hainbat helburu ditu: Eneko gogoratzea, kirola egitea, parte hartzean konbidatzea eta ze egoeratan joan jakun gogoratzea, barriro holangorik jazo ez daiten.

Abenduaren 23an, beste 8.000 txirindularigaz batera, Iñaki Lejarretaren omenaldian be parte hartu neban, holan, errepidera urtenda, Lemoako kaleetan abenduaren 31 guztietan egiten dan lez, gai honen inguruko errespetuak eta kontzientziak gora egingo dabelako esperantzan.

* Erredakzinoan itzulita

BATZ
BATZ, S. KOOP.
Tornea auzoa, 32
48140 IGORRE (BIZKAIA)

- Trokelgintza
- Automobiletarako Sistemak

Beharrez beharrez,
euskeraz eginez

Enbata
Batzen gaitu

MONDRAGON
INDUSTRIAL CONTRACTS

LUMATUTEN



UNAI SANTOS

United Guns of America

20 urteko ume gorri bat izan da azkena. Adam Lanza deitzean ei zan. Joan dan abenduaren 14an, pistola bi eta errifle bat erioiazan aldean eta eskola baten sartzea ebatzi eban. Zaharrak barri, zoritxarrez: 26 persona errubakoren bizitzak galdu ziran, tartean 6 urteko neska-mutiko ugari, eta Lanza gazteak herrialde horretako zerrrenda baltzean beste orrialde odoltsu bat idatzi eban.

Jakina da Ameriketako Estatu Batuetan arma bat eskuratzea oso erreza dala. Euren Konstituzioaren Bigarren Emendakin famaduan argi aitatzen da *the right to keep and bear arms*, eta legediak su-armak izateko eta erabilteko eskubide hori aspalditik babesten dau. Gauzak holan, seme-

alabai gazte-gaztetatik irakasten deutsee armak erabilten. Askok ez dabe Italia mapan kokatzen jakingo; hori bai, 9 mm-ko *Glock* bat eskuetan eutsi eta ganoraz tirokatzeko kapaz izango dira. Eta gainera gurasoak harro! Bihar-etzi hori izango ei da eta euren etxea eta familia defendatzeko bide zuzenena...

Panorama horrek, duda barik, atean pare pare zabaltzen ditu Newtown-ekoa moduko sarraskiak gertatzeko. Ez dira konturatzeko, antza, indarkeriak indarkeria gehiago dakarrela, eta armak arma gehiago. Izan be, Newtown-eko hilketearen ostean, beste askotan gertatu dan moduan, su-armen salmentak gora egin eban Estatu Batuetako leku askotan. Jenteak, bildurak bultzatuta, arma gehiago erosten ditu ahal bezain laster, eta espiral arriskutsu horrek aurrera jarraituten dau Osaba Sam-en lurraldean.

Dana dala, armak dirala eta ez dirala, betiko kontuaren aurrean gagoz. Gaur egun Ipar Ameriketara hainbeste su-arma baldin badagoz, hori norbaiter interesetan jakolako da. Tradizinoa eta kultura, beste askotan lez, atxakia hutsak dira. Negozio itzela dago honen guztiaren atzean, eta, amerikarrak alkar hiltzen jarraituten daben bitartean, batzuek boltsikoak ondo beteta izango ditue.

ZERTZEAN



IKER YURREBASO

Zein da ibilbide biribilena? lainoetako ur tantak egiten duena... basoko hauspo-kantaren melodiarena... begirada zuhurren ederrarena... sufritzen deneko momentuarena... hemendik eguzkiraino eta bueltako bidearena... zein da zure motibazioa?

* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera eremuan ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezkerro, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

Ferminek aspaldi esan eban Korrikarako prestatutako kanta baten "Macdonalizazioa, kultur globalizatua...". "Santxeskiak", graffitiak, breakdance, beat-box... Estatu Batuetan? Ez, Igorren be bai! Bertso saioetatik harago, Urban Jaia ospatu da Igorren. Pablo Hasel eta Norte Apache musika taldeen erritmoagaz hainbatek gozatu eben letra esanguratsuak entzunaz.

"Apur ditzagun hesiak eta landatuko ditugu askatasun haziak, musika eszenan bezala euskal rap-aren sustrai berriak. Badugu historia nondik hasi altxatu guztiok egingo dugu garraxi. Lortuko dugu, zuen kontzientzia zapaltzea! Lortuko dugu, gure mezua zabaltzea!"

Irti Urien




Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

Gorosti
LORAZAINTZA

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48. 142 Artea
Tel.: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisl.com

 **agoa** Ortodontzia
hagin klinika Inplanteak
Estetika

Marina Urigoitia Aideroa Odontologia

Bidebarri 1, behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39

Naiztoa Zentroa 110
R.P.S. 25/06

 **JANDONIZ**
nagusientzako etxea
residencia para mayores

Jandoniz, 2 - 48390 BEDIA Bizkaia - tel. 94 631 31 30 - www.jandoniz.com

ARRATIA

Eskualdeko Enplegu Planaren diagnostikoa aurkeztu da

Erredakzioa

Arratiako Udalen Mankomunitatea, eta Galdakaoko eta Amorebieta-Etxanoko administrazioak enplegua modu bateratuan sustatzeko, Eskualdeko Enplegu Plana egiten dabiz. Abenduaren 17an, lehenengo analisia eta diagnostikoa aurkeztu eben Usansolon, bertoko enpresa eta erakundeen aurrean. Bertan, inguruak daukazan ahuldadeak eta sendotasunak nabarmentzen dira.

Ahuldadeen artean dagoz populazioa zahartzeko arriskua, lehen mailako sektorearen ahulezia, Enplegu Erregulazionoko Espedientearen egoeran dagoan enpresa-kopuru handia edo saltoki itxien kontzentrazioa, besteak beste. Eskualdeak aldeko puntuak be badaukaz; esate baterako, bertako populazioaren ikasketa maila (ertain-altua), biztanle bakoitzeko batez besteko BPG (Bizkaikoa baino altuagoa) edo industrialdeetan eskuragarri dagoan lurzoru industrialia. "Txosten hau oraindino

garatu beharra dago, eta dirulaguntzak lortu eta alkarlanak gauzatu. Halanda be, epe ertainean garatu beharko diran ekintzak eta ezarri beharreko neurriak nabarmentzen daz" mankomunitadearen iturrien arabera.

Enplegua sortzeako neurriak

Aurkeztu dan testuak lau neurri zehatz proposatzen daz, aurrera egin ahal izateko. "Eskualdean trebakuntza-eskeintza lehiakorra garatzea; enpleguaren babesera eta sustapenera zuzendutako eskualde mailako kolaborazio-sistemea artikulatzea; ekintzailatza sustatzea, eta eskualdean garapenerako potentziala daukien sektore ekonomikoetan, adibidez, zerbitzu sektore eta lehen mailako sektorean, enplegua sustatzea" dira neurri honeek. Produktu ekologikoak ekoiztea, mendi publikoetako larreak aprobetxatzea batez be, Arratia inguruan eta aisialdira bideratutako jardueren bitartez enplegua sortzea dira planeko proposamenetako batzuk.



Usansolon egindako batzarra.

ARRATIA

Mankomunitadeak 2013rako aurrekontua onartu dau

Erredakzioa

2013rako aurrekontua "zerbitzu guztiak bermatuko dauan aurrekontua" da Josune Gorospe AUMeko presidentearen arabera eta EAJ-PNVren aldeko 10 boto-gaz eta Bilduren 8 abstentzino-gaz onartu zan.

Abenduaren 26an egindako Arratiako Udalen Mankomunitatearen Osoko Bilkurak gehien-go osoz onartu eban 2013rako 4.390.362 euroko aurrekontua, aurreko ekitaldian baino % 5 gutxiago. "Kontu honek manko-

munitadeak eskeintzen dauzan zerbitzu guztiak mantentzea ahalbidetuko dabe, hori zan-eta gobernu taldearen helburu nagusietako bat" dino Gorospek.

Aurrekontu honetan "udal gehienek ekarpenak muriztea lortu da, Giza Larrialdietarako Laguntzen zerbitzuari zuzendutako partidak handitu egingo dira eta aurreko urigintza bulego teknikoak iraunkortasun bulego lez egokitu da".

Mankomunitadearen gastu arruntak murizteko udal eskaerak eta proposamenak hartu dirala kontuan dino Gorospek.

ARRATIA

Osakidetzak Arratia Egoitza saritu dau

Erredakzioa

Arratiako Mankomunitadearen nagusien egoitzak Osakidetzako Barne Eskualdeak emoten dituan Eguzki-Mari saria jaso dau. Belau-naldien arteko integrazino proiektuakaitik saritu dabe Dimako egoitza. Saria Aitor Sorriketak egoitzaren presidentek jaso eban.

Saritutako proiektuaren bidez, eskola-umeak egoitzara joaten dira nagusiak egon eta hartu-emonak sendotutako astean behin. Hartu-emon honek, ume zein nagusientzat "sano aberasgarritzat" jotzen dabez egoitzakoak.

Ekitaldia abenduaren 17an izan zan Zornotzako Zelaieta Aretoan. Bertan Naiara Zamalloa egoitzaren gerentea, Aitor Sorriketa presidentea eta Arratiako Nagusien Egoitzan behar egiten daben psikologoak, jagoleak eta beste langile batzuk egon ziran.

ARRATIA

Nekazaritza hondakinak birziklatzeko proiektua martxan

Erredakzioa

Gorbeialde Landa Garapenerako alkarteak, Arratia-Nerbioiko eskualdeko nekazaritza eta abelazkuntza ustiapenetan sortzean diran hondakinak birziklatzeko proiektua abiatu eban abenduan. Berotegietako eta bedar bolen plastikoak jasoko ditue lehen fasean.

Horretarako, parte hartu gura eben nekazari eta abeltzainak Gorbeialde alkarteagaz ipini ziran kontaktuan. Datu horreekaz, bilketa ibilbidea egin eben Gorbeialden eta hondakinok hilaren 7an jasoko dabez. Plastikoak Bergarako birziklatze planta batera eroango dira Gorbeialdeko Sonia Barrondok esandakoaren arabera.

Bigarren fasea udabarrian

Fase hau amaituta, udabarrian ontzi fitosanitarioak, artzain elektriko pilak, produktu zoosanitarioen ontziak eta xiringak hasiko dira batzean. Baita negu honetan zehar abereak konsumidutako bola plastikoak.

BEDIA

Incoesako kaleratuak beharrera bueltauko dira

Erredakzioa

Incoesa enpresako beharginak eta enpresa akordio batera heldu ziran abenduaren 28an, eta adostu bako kaleratzerik ez da egongo. Lan hitzarmena negoziatuko prozesua be abian da.

Enpresek 16 behargin kaleratu zituan eta Incoesako beharginak mobilizazioetan hasi ziran. "Horreetako 7k euren kabuz lortu eben akordio bat enpreseagaz beharra ixteko baina indemnitazio handiagoagaz eta ez dira mobilizazioetan egon" azaldu eutsan BEGITURI Juan Karlos Vizan

LABekoak. "Beste lau aurrejubilazino egon dira eta beste guztiak beharrean jarraituko dabe".

Mobilizazioak

Incoesako beharginak abenduaren 20an, 16 langileren kaleratzeen kontra protesta egiteko greba egin eben eta hurrengo egunean lan-ixtea egin eben. Abenduaren 26 eta 27an, 24 orduko lan-ixteak egin zituen eta 28an, lau ordukoa. Urtailaren 2an greba mugabakoari ekitekoak ziran akordiorik lortu ezean, baina ez da horren beharrik izan.



Incoesa enpresa Bedian.

IGORRE

AMEk hiru otzara zozketatu ditu

Erredakzioa

Abenduaren 28an, Arratiako Merkatarien Elkarrekin (AME) merkatariek emondako produktuz betetako hiru otzara zozketatu zituan. Irabazleak, Julene Fernandez Sanchez, Iratxe Barroeta Olabarria eta Emilia Ivanof izan ziran. Zorionak!



Hiru saridunak Pedro Kortazar AMEko presidentearagaz.

ARRATIA

Nekazaritzearen gaineko sail barria martxan BEGITUN**Erredakzioa**

Kantu Herrikiok Saila amaitu egin da. Arratiako Musika Eskolak 25 urte bete izan dituan urtean Ruper Lekuek eta beste batzuk Arratian jasotako kantuak argitaratu doguz sail horretan. Aurten, eta zenbaki honetan hasita, Igitie baseritar agroekologikoen alkar-teak izango dau bere sailtxoa bigarren orrialdean.

Erredakzinotik kanpo egiten dan beste sail bat be badago BEGITUN, Dunba izenekoa hain zuzen be. Hau Arratiako ikaste-txeetako ikasleak egiten dabe eta bere horretan jarraituko dau aurten be.

Inkestea

Aurreko hileko inkestearen itaunari erantzun eutsien irakurle guztiak Gabonak familiagaz pasetako asmoa eukien. Izan be, % 88,2k erantzun dabe familiagaz pasauko dituela oporrak. Beste % 11,8k familiagaz pasau eta oporretan be joango zirala erantzun eben.

Hile honetako itauna: "Gauzarik garrantzitsuenak osasuna, dirua eta maitasuna ei dira. Dirua eta maitasunaren artean aukeratu beharko bazendu, zein aukeratuko zeunke?".

Emon botoa www.begitu.org gure webgunean.

ARRATIA

Gabonak ez dira amaitu

Urte barria hasita egon arren, Errege Magoen eguna pasau arte oporretan dagoz eskola-umeak eta herrietan Gabonetako ekitaldiak ez dira amaitu.

Erredakzioa

toan.

AREATZA**Urtailak 3, eguna**

20:00etan, *Gazta zati bat* dokumentala Udal Aretoan.

BEDIA**Urtailak 3, eguna**

10:00etan, Gabonetako Umeen Parkera urtekerea.

Urtailak 5, zapatua

18:00etan, Erregeen Kabalgatea.

IGORRE**Urtailak 3, eguna**

11:30etik **13:30**era eta **16:30**etik **19:30**era, Gabonetako Umeen Parkea. Motxogaren tailerrak aterpean.

Urtailak 4, barikua

19:30ean, Areatzako Bandak Urtebarri kontzertua Lasarte Are-

Urtailak 5, zapatua

18:30ean, Erregeen Kabalgatea Mandoia kaletik.

Urtailak 6, domekea

Errege Magoak Arratiako egoitzetatik.

17:00etan eta **19:00**etan, Txirri, Mirri eta Txiribiton Lasarte Aretoan.

**LEMOA****Urtailak 3, eguna**

10:30ean, Gabonetako Umeen Parkera urtekerea ludotekan.

LEMOAKO KARABIE GAZTETXEA**Urtailak 3, eguna**

18:30ean, *Kafe aleak* liburuaren aurkezpena.

Urtailak 4, barikua

19:30ean, berbaldia GITE-IPESen eskutik.

Urtailak 5, zapatua

22:00etan, Stenkeik taldearen kontzertua.

AREATZAKO LAMINETXE GAZTETXEA**Urtailak 3, eguna**

19:30ean, postre lehiaketea eta ostean zine proiektzioa.

Urtailak 5, zapatua

21:30ean, Txaparronen V. edizioa.



DIMA

Gazte Plana martxan**Erredakzioa****Diman gazteak.**

Dimako Udalak gazte plan bat ipini dau martxan, gazteai zuzendutako hainbat jarduera jasoten dituana. Hamalau eta hogeta hamabost urte bitartekoentzat da eta urtailan abiatuko da. Hileon hiru tailer egongo dira: elikadura eta fruta arbolen inausketea, bizikleta tailer soziala eta genero tailerra, hain zuzen be.

Zapatu goiz bi hartuko ditu elikadura eta fruta arbolen inausketa tailerrak. Urtailaren 19 eta 26an izango da 10:00etatik 13:00etara. Interesa daukienak izena hilaren 11 baino lehenago emon behar dabe. Bizikleta tailer soziala be urtailaren 26an izango da udaletxean eta izena emoteko azken eguna hilaren 18a da. Genero tailerrari jagokonean, eguna zehaztu barik egoan BEGITU zarratukeran.



ALKIZABAL

www.alkizabal.net
alkizabal@alkizabal.net

Zabalik 07:00 - 19:00

Eraikuntzarako makineriaren salmenta eta alokairua

BOLUNBURU POLIGONOA

Amorebieta-Lemoa bidea
Tel. 94 631 44 06. Faxe. 94 631 20 26
48330 Lemoa (Bizkaia)



Banatzaile
ofiziala















- Zuk behar duzuna daukagu, galdetu konpromiso gabe.
- Garraio zerbitzua.

ARRATIA

Bitoriano Gandiaga gogoratu Gabonetan

Arratia osoko 240 neska mutilek *Abendu meza Gandiagaren eskutik* aurkeztu eben Igorren abenduaren 22an.

Erredakzioa

Arratiako zortzi herrietako kideak kanta, bertso eta poesiak batu dabez ikuskizun honetan. Aukeraturako testuak Bitoriano Gandiaga poetarenak izan dira, Pello Zabalak musikatuak, eta antolatzaileak esan dabenez, "hitz eta doinuak, kristau gabonaren zentzuna sakondu gura izan dabe".

Asteak emon dabez ekitaldi hau prestatzen Bedia, Lemoa, Dima, Igorre, Arantzazu, Artea, Areatza eta Zeanuriko katekesiko neska-mutilak,

eta familiak buru-belari murgildu dira, seme alabai lagunduz.

Gabon Jai bateratu honen ohitua aspalditik dator. Gabon aurreko zapatu baten, urte bakotxean herri baten, katekesi inguruko neska-mutil, familia eta katekistak bat egiten dabe. Helburua "jai hau alaitasunez ospatzea da, inguruz gaituan giro konsumistatik alde eginaz". Urtero gai eta bide desbardin bat aukeratzen da: gabon kanten bidez, ipuinak kontatuz, antzerki txikien bitartez...

Aurtengo ospakizuna Bitoriano

Gandiaga poeta frantziskotarraren lanen inguruan eratu da, Arantzazun bizi dan Pello Zabalak musikaz jantzitako poemak bitartez.

Herri bakotzak gai bat aukeratu dau, bere estilo eta baliabideak aurkezteko asmoz. Areatzakoak, adibidez, pregoia aldarikatu dabe eta argien ibilaldi batez apaindu dabe beratu. Igorre eta arantzazutarrak, Santa Agedako herri doinuak erabiliz, Kongoko umeak izan dabez akorduan; izan be, egunotan tonbola solidarioa egon da Igorren, Kongon eta Perun lanean dabilzan misiolari arratiarri laguntzeko: Maribel Egiluz eta Juanita Agirre.

Bestetik, zeanuritar gaztetxo talde bat Arantzazuraino joan da egunotan Pello Zabalari alkarizketa bat egin eta Gandiaga bizi izan zan tokia eta bere lana ezagutzeko asmoz. Hori guztiori kontuan harturik, ikus-entzunezko aurkezpen bat prestau dabe.

Zazpi pieza txiki izan eban ospakizunak, bakotxa tonu eta estilo desbardinaz aurkeztua, eta antolatzaileak esan dabenez, "guztiak kristau Gabonak prestatzeko bidean".

Ospakizuna amaitu zanean, Caritas Arratiak bidezko merkataritzako produktuz osaturiko mahaia ipini eban, inork gura izan ezker, genero hori erosi eian. Hasieran ez, baina, "txokolatea hartu eta tertulian, polito saldu zala" adierazo dabe Caritas Arratiako boluntarioak.



"Abendu meza" Igorren.

ZEANURI

Esteban Manterola abadeak 100 urte bete ditu

Erredakzioa

Abenduaren 25ean 100 urte bete zituan Ipiñaburuko Aranguren baserriko semeak. Esteban Manterola Dimako parrokoa izan zan berrogeita bost urtetan.

"Dimako parrokoa izan zan, eta abade lanagaz gain, Antonio Zavala jesuiteagaz egin eban behar Arratiako euskerearen informatzaile legez. Jenteak oraindino gogoan ditu bere biajeak motorrean Dimatik bere Zeanuriko baserriraino" dinoe Arratiako Eleizatik. Gaur egun, San Bizente abade egoitza bizi da.

Egunotan hainbat bisita izan ditu Manterolak "guztiz hunkitu dabenak". Izaskun Sagama Zeanuriko alkatea eta Zeanuriko parrokoak, Esteban Orbe Dimako parrokoa eta eleiztarrak, gotzaia, Andoni Gerikaetxebarria eta Estibaliz Pertika, abadeentzako bikaritzaz zerbitzuko arduradunak, eta beste abade lagun batzuk.

Zeanuriko Andra Mari eleizan esker oneko meza bat ospatuko da urtailaren 27an.

ARRATIA

Preso eta iheslarien alde Gabon Zahar egunean manifestazioa

Irati Urien

Gabonetan hainbat ekintza burutu dira Arratiako herrietan preso eta iheslarien alde; urteroko Gabon Zahar eguneko manifestazioa berbarako. Sei t'erdietan abiatu ziran manifestariak, Igorreko goiko plazatik. Txistulariak lagun, herritik zehar ibilbidea egin ostean, Kultur Etxeko plazan izan zan ekitaldia. Oraingoan, aitam

berezia egin zan falta diranai. Batetik, Edu Perez de Anuzita eta Iñaki Bilbao presoak; bestetik, Ana Petralanda eta Tomas Linaza erbesteratuak. Bakotxaren izena aitatu ahala, bengala gorri bat biztu zan. Guztira, 300 bat lagun inguru hurreratu ziran. Amaieran, urtailaren 12an "danok Bilbora joateko deialdia" gogora arazo eban. Hator hator abestuz amaitu zan ekitalditxo.



Igorreko manifestazioa.

IGORRE

Konposta egingo dau Inazio Zubizarreta ikastetxeak

Erredakzioa

Inazio Zubizarreta ikastetxeak sortzean dauan organiko guztia, zabortegira bota orde, ikastetxean bertan ezarri dan konpost gunean kudeatuko dau. Orain arte, organikoa zaborra izango balitz moduan tratetan zan. Jangelako sobra guztiak, ikasturtean zehar hamar tonelada inguru, zabortegira botatzen ziran. Eskola berdeen proiektuari esker, jateko sobrak, sukaldatutakoak eta sukaldatu bakoak, konpostatu eta lurrerako ongarri bilakatuko dira.

"Eskola berdeen proiektua, Igorreko Udalak bultzatuta, Inazio Zubizarreta ikastetxeagaz alkarlanean osatu da. Hondakinen gaiari lotutako proiektuaren barruan, ikastetxeko langile, ikasle eta

gurasoen sensibilizazio eta inplikazioa landutako ekintzak antolatuko dira. Eta bide batez, ikastetxeak hondakinen tratamendu egoki baterako pausak emongo ditu" udal iturrien arabera.

Igorreko Udaletik jakitera emondakoaren arabera, Igorreko birziklapen tasak ez dira % 40ra iristen eta hondakinen % 80tik gora birziklagarriak dira. Familia batek sortzean dauan hondakinen kopuruaren % 40 organikoa da.

"Datuak, hondakinen tratamenduan eredu barri baten beharra islatzen dabe zalantza barik. Holan, bai ikuspegi ekonomikotik baita iraunkortasunaren ikuspegitik be, onurak besterik ekarriko ez dituan bidea bultzatu gura dau Igorreko Udalak".



Inazio Zubizarreta ikastetxea.

AREATZA

Herritarrek aldaketarik gura daben oinezkoen eremuan itaundu dau Udalak

Erredakzioa

Abenduaren 21ean eta 22an Areatzakoak euren eretxiak eta ekarpenak emon eben herrian oinezkoak eta autoak egiten daben espazioaren erabileraren inguruan. Herritarren intereseko gaien inguruko eretxiak jasoteko Udalak Zuk Esan Areatza ekimena ipini dau martxan eta lehenengoetariko itauna izan da herrian dagoan oinezkoentzako espazioaren gaineko adostasun maila jakiteko.

Gudarien plazan karpa egon zan eta bertan ekarpenak botateko kutxa. Aurretik billaroztarrak jaso eben etxean erdigunearen planoa eta galdetegi bat. Galdetegiak udaletxeko buzoi berdean ixteko aukerea be euki dabe ekarpenak egin gura izan dabenak.

Kale itaunketez gainera beste modu batzuk be aurrekusi ditu Udalak jentearen eretxiak jasoteko. Holan, www.zeukesanareatza.com webgunea ipiniko da martxan hileon, eta foroak be antolatuko dira.

EKOLOGISTAK MARTXAN-EN BERBALDIA (II)

Erraustegi eta zabortegien aurrean, konpostajea da bidea (II)

Zemendiaren 30ean, Igorre Bizirik talde ekologistak Ekologistak Martxan-eko Basauriko Sagarrak taldeko Roberto Galdos ekarri eban, "Erraustegiak eta zementerak: hondakinen negozio itzela" izeneko berbaldia emoten. Hizlariak, zaborra kudeatzeko moduaren atzean interes ekonomikoak dagozala eta errausketeagaz amaitutako borondate politikorik ez dagoala salatu eban.



Cementos Lemona enpresea.

Erredakzioa

Hondakinak tratetako hierarkia bat dago ezarrita Europako 2008/98 Zuzentarauaren bidez. Hierarkia hori erabilten da hondakinen prebentzioari eta kudeaketari buruzko legeen eta politiken lehentasunak ezarteko. Halan, hondakinak tratetako lehenengo pausua prebentzioa da. Bigarrena barriro erabilteko prestatzea. Hirugarrena, berzikla-

pena. Laugarrena, balorizazioa. Eta, azkeneko alternatibea desagerraraztea.

Hurrenkera hori, baina, ez da beti betetzen. Gurrupilen kasuan, esaterako, ez dira berziklatzen (beste gurpil batzuk egiteko, edo kaminoetako zolua egiteko), nahiz eta gurpilak erostean birziklatze-tasa bat eukiten daben aplikautu. Horren ordez, balorizatu egiten dira gurpilok, hau da, erre egiten dira energia

lortzeko. Beste hainbeste egiten da, esate baterako, animalia-urinak edota plastikoak.

Zabalgari da Bizkaian dagoan zaborrak erretzeko erraustegia. Baina ez da horretan dabilen lantegi bakarra. Izan be, zementogintza fabrikak hondakinak erretzeko be erabilten dira. Batez be, pneumatikoak eta animalia-urinak. Hondakinak erretzetik, onura bikotxa ateratzen dabe zementu fabrikak, eta hortik negozioa. Batetik, dirua aurrezten dabe erregaletan; izan be, hondakinak (erregai alternatiboak izentatzen dira) merkeagoak dira orain arteko erregaia izan dan petrolio-kokearen aldean. Bestetik, hondakinok trateteagaitik sarrituak izaten dira; esate baterako, Ingurumenaren Europar Saria jaso eban Cementos Lemona enpreseak, 2006an. Sari hori iraunkortasunaren alde gehien egiten daben enpresak jasoten dabe.

Dioxinak eta furanoak

Baina gurpilak eta plastikoak lango hondakinak erretzean osasunerako partikula mota arriskutsu batzuk isurtzen dira: dioxinak eta furanoak. "Materia organikoa eta plastikoak batera erretzean, konposatu organokloratuak sortzean dira eta honeek dioxina edo furanoak sortzean dabez. Sano partikula finak dira dioxinak eta erretzean ez dira desagitzen" esan eban Galdosek Igorreko berbaldian. "Dioxina da gizakiak sortutako substantziarik toxikoena, DDTa edo zianuroa bera baino toxikoagoa. Osasunaren Mundu Erakundeak onartu dau dioxinak minbizi sortzaileak dirala. Gainera dioxinak osasunerako beste arazo larri batzuk be

sortu daiekiz: umeen garapenerako arazoak dakar, adimenean eragiten dabe eta ikasteko arazoak sortuten ditue" esan eban Julia Sanjose medikuak Arratian orain dala urte batzuk emondako berbaldian.

Sano partikula txikerrak dira dioxinak eta furanoak, eta filtroetatik pasetan dira. Gainera, aireak 25 km. inguruko erradio bateko edonon topau daitezke haize-korronteen pentzura. Batez be, barazkietan, behi-esnean eta personeren koipe zein ama esnean pilatuten dira.

Arratiaren kasuan, Cementos Lemonaren planta daukagu. Bertan, "erregai alternatiboan" presentzia handitu egin da azkeneko urteotan. Izan be, petroliokoketik lortzen zan energiaren % 80, 2009an. Bi urte beranduago, ostera, % 45 lortzean zan; beste % 55a plastikoak, gurpilak, animalia urunak eta egurrezko hondakinak erretzetik lortu zan⁽¹⁾.

Emisioetan be gorakada egin zan dioxina eta furanoen neurketan: 0,011 ng/m³ izan ziran, 2009an; 0,018 ng/m³ 2010ean; eta 0,055 ng/m³, 2011n⁽²⁾. Dana dala, sasoi berean, zementu produktzioak behera egin eban.

Kopuru horreek guztiak legezko mugaren barruan dagoz (0,1 ng/m³). Halanda be, esan behar da talde ekologistak zantzantza asko izaten dituela halango indizeen aurrean; izan be, ez dago hain neurri txikiak detektetako metodo fidagarririk. Gainera, neurketak ez dira kontinuoa, eta kopuruak hiru hilabeterik baten egindakoen mediak izaten dira.

Zementu produktzioa behera

Krisiak modu zuzenean eragin deutso zementogintzeari: etxegintzearen beherakada eta lan publikoen eta azpiegituren murrizketak porlanaren eskaerea amildu egin dau. Izan be aridoen konsumoa % 64,4 jausi zan Espainian 2006tik 2011ra⁽³⁾.

Cementos Lemona be produktzioa gitxitu egin dau⁽⁴⁾.

"Dioxina da gizakiak sortutako substantziarik toxikoena, DDTa edo zianuroa bera baino toxikoago..."

Zugaitik BEGITuten dogu
A.P.I. 495
www.inmobiliarialarrea.com

Lehendakari Agirre, 8 behea
48140 Igorre

Tfnoa: 94 631 80 04

Kendall Languages

- A, B eta C perfil linguistikoen lorpena Trinity College London eta Oxford Universityren zentru ofiziala, azterketak zentruan bertan eginaz


- Cambridge, EOI, First Certificate... azterketetarako prestaketea

Ellexalde 4 behea - 48.140 Igorre (Bizkaia) - 94 657 73 48 - www.kendall-languages.com

ASESORIA
Gorbeialde

Juridikea · Fiskala · Lanekoa · Kontabilitate

Askatasun 28, 1B - 48143 Areatza
Tfnoa: 94 673 92 93 Faxa: 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com



Lantegiak hondakinak erreteko hartutako ebatzia dala eta, sindikatuak oso kritikoak izan dira beti. Halan, "ELAk salatzen dau balorizazioagaz ustez lanpostuak defendatzearen gainetik, benetako arrazoia danen gainetik negozioa egitean dagoala, nahiz langileak nahiz ingurumena kalteu" dinoe ELAtik.

Izan be, hondakinak gero eta gehiago erretzen baditue be, 33 langile kaleratu ditu Cementos Lemona. Enpresa batzordeko Jabi Amorrortuk esandakoaren arabera, "ez dago industria egitasmo jasangarririk 29 behargin gitxiagaz (4 aurre-erretirau dabez errelebo kontratuagaz)" eta lantokia saltzea da euren esperantzea Cementos Lemona

bere atek ez zarratuteko.

Konpostajea da bidea

2008an, Europako 2008/98 Zuzentarauak, konposta egitera eta hondakin organikoak biogas bihurtzera derrigortu eban erreteari alternatiba bat emoteko.

Ekologistak eta erakundeak bat datoz konposta egiteak bentaja asko daukazan eretxian. EHNEK konposta egiteko ikastaroak emoten dauz eta Arratiako baserri batzuetan egiten dabe konposta ongarri moduan erabilteko. "Lurra erreteko balioagarria da. Pinua euki dogu gurean, baina gaixorik dago eta kentzean dabiz leku askotan. Lurra guztiz erosionautu geratu da han eta lur honeek aberasteko erabili

daiteke konposta" esan eban Galdosek.

⁽¹⁾ Iturria: *Declaración Ambiental 2011. Fabrica Lemona*. Grupo Cementos Portland Valderrivas. Cementos Lemona.

⁽²⁾ Iturria: *Declaración Ambiental 2011. Fabrica Lemona*. Grupo Cementos Portland Valderrivas. Cementos Lemona.

⁽³⁾ Iturria: *Informe coyuntura económica Cepco*. Confederación Española de Asociaciones de Fabricantes de productos de construcción. 2012.

⁽⁴⁾ Iturria: *Declaración Ambiental 2011. Fabrica Lemona*. Grupo Cementos Portland Valderrivas. Cementos Lemona.

Mehatxu barriak

Orain arte Arratian zabortegeak eta erraustegiak sortutako kutsadureagaz amaituteko, eta zaborrak tratetako eredu barri bat abiatu dala emon arren, Arratiako lurra, urak eta arratiarren osasuna arriskuan ipinten dabezan mehatxuak egon badagoz. Esaterako goi-tensinoko linea Zeberio, Bedia, Igorre eta Lemoatik pasauko dana. Indar elektromagnetiko honek ustez minbizia, leuzemia eta alzeheimerra izateko aukerak handitzen ditu. Igorreko Udalak Bizkaiko Gobernuaren ordezkariordetzan, goi-tensinoko linearen kontrako herritarren alegazioak aurkeztu ebazan martiaren 25ean. Dana dala proiektu hau aurrera doa. Kalte handienak dakarzana, baina, fracking edo haustura hidraulikoa da.

Fracking-a edo haustura hidraulikoa

Abenduaren 4an Eusko Jaurlaritzak Saia baimena emon eban hidrokarburoak ustiari ahal diran ikertu eta frackingaren bidez ateratzeko. Frackinga edo haustura hidraulikoa gasa ateratzeko teknika bat da. Lehenengotik, zulo sakona egiten da (5.000 metroaraino iritsi daiteke). Gero, galeria horizontalak zulatzen dira eta ura eta produktu kimikoak injektatzen dira harria apurtzeko. Azkenik, injektatutako likidoa ateratzen da eta gasak gora egiten dau. Teknika honetan ur kantidade handiak erabiltzen dira eta akuiferoak be kutsatu egiten dira, bizitzarako erabiltzen dan ur hornikuntza arriskuan ipini arte. Izan be, sei putzuko plataforma batek 172.000 eta 210.000 bitarteko tona ur behar izaten ditu. Gainera, erabilitako eta produktu kimikoz nahastutako ura, gainazalean ixten da eta horrek akuiferoak eta lurra kutsatu daikiez.

Zulatu torreak, ur zikinen urmaelak, azpiegitura lagungarriak, eta bide azpiegiturak lur okupazio handia eta inpaktu paisajistiko nabarmena eragiten dabe, milaka putzu zulatzen dira-eta zona bat ustiatzeko. Hau egiten dan lekuetan, ingurumena guztiz kutsatu eta gizartea bera be eraldatu egiten da.


Arratiako udalerrietan frackingaren kontrako mozinoak aurkeztu ziran abenduaren 14an.

BESTE EDUKIONTZI BAT GURE LURRA JAGOTEKO!

Badator edukiontzi marroia, bosgarrena. Prestatu bako landara-hondakin gordiontzeat. Adi egon eta lagundu eiguzu gure lurra jagoten. Informa zaitez!

ZAINDU GURE LURRA, MARROIA ERABILI.

INFORMAZIO GEHIAGO: www.arratia.net · 94 631 17 17 · 608 950 133



TXIRRINDULARITZEA

"Bizikletan bizitza bat doa"

Gabon egun bezperan 8.000 lagun batu ziran goizeko

10:00etan Guggenheim museotik urten eta lurretara zuzendu zan martxan, Iñaki Lejarreta txirrindulariaren omenez.

Cristina Ruiz

Sare sozialen bitartez zabaldu zan ekimen hau eta Arratiako alkarteak be hartu eben parte. Holan, Lemoa Txirrindulari Elkarteko 20 kide inguruk Elizondon hasi eben abenduaren 23ko jardunaldia; Bilboko norabidea hartu eben eta ehundaka txirrindularigaz alkartu ziran errepidean. Eta Galdakaora heldu ziranean taldea hain zan handia ze, udaltzaingoak babestuta segidu behar izan eben martxea, Bilborantzako karrilak bizikletaz beterik.

Arratiako Ziklista Elkarteko kideak be Bizkaiko hainbat lekutatik etorrita batu ziran Guggenheimen aurrean, beste talde, klub eta norbanako askogaz batera, alkartasuna adierazoteko Iñaki Lejarretaren familiari. Bestalde, trenean joatea erabagi ebenai lehenengo trenan gelditu barik pasau jakien aurretik Lemoan: jentex eta bizikletaz gainezka joan.

Baina handik minutu batzuetara hartu ahal izan eben eurak be Bilborako bidea, Euskotrenek eskeinitako zerbitzu bereziari esker.

Martxa hau Iñaki Lejarretari eskeinitako omenaldia ezeze, txirrindularien segurtasunaren aldeko aldarrikapen masibo bat be izan zan, "Bizikletan bizitza bat doa" lelopean. Iñaki Lejarreta auto batek harrapatuta hil zan abenduaren 16an. Deialdia agoz ago eta sare sozialen bitartez zabaldu zan, eta inork ez eban espero horrenbestekarako parte-hartzerik. Hain zuzen be, Madrileraino heldu zan mobilizazio honen oihartzuna, eta egun be-rean txirrindulari be ugari batu ziran Plaza Castillan, errepidean bizitza galdu daben lagunak omentzeko eta istripuak saihesteko neurri fitea salatzeko.

Gure eskualdeko txirrindulari alkarteak ekimenaren oso balantze positiboa egin eben. "Azpimarra-

tzekoa da martxa-omenaldiaren izaera espontaneo; Lejarretaren istripua jazo zanean danok sentidu genduan zeozer egin behar zala eta holan sortu zan mobimentua. Zorionez, gidari askok ikusi eben martxea, egunean bertan edo gero telebistan", adierazo eban AZEko Manu Garcia "Gartzi"k. Eta Lemoako alkarteko Jose Felix Aldekoaren eretxian, "oso inportantea eta hunkigarria izan zan, baina, batez be, beharrezkoa; ikusten dogulako kotxeak gero eta errespetu gutxiago daukiela, eta horregaitik espero dogu kontzientziak astinduteko balio izatea abenduaren 23ko martxeak".

Horrezaz gainera, Arratian beste hitzordu inportante bat izan da urteko azken hamabostaldian, errepidean entrenetan ebilela heriotzekak harrapau eban beste kirolari baten omenez. Abenduaren 31n Eneko Zamalloa Memorialaren bigarren edizinoa egin zan Lemoan. Lasterketa herrikoia da, kirola bultzatzeko, Zamalloari gertatu jakona gogoratze, eta holangorik errepikatu ez daiten aldarrikatzeko. Enekoren aitek be parte hartu eban edizino honetan, esfortzu handia eginaz: azpimarragarria benetan. Eta Cementos-eko langileak be aukerea aprobezatu eben euren aldarrikapenak agertuteko, danak kamiseta bera jantzita helmuga gurutzatuz. Urtea amaitzeko jai giroa bultzatzen

dabe holango ekintzak eta horren erakusgarri izan zan herriko kaleetan batu ziran umeen, gurasoen eta koadrilen saltsea.

Beraz, azken asteotan biztu dan aldarrikapen olatua ez da kontu barria. Aspaldiko arazoa da errepidean entrenetan daben kirolariak bizi daben arriskua; eta egoera hau konpontzeko neurriak hartzea danon ardurea da: batez be, agintariena, baina baita errepideetako erabiltzaile guztiena be. Jose Felix Aldekoak argi azaldu dau, lehenengo, bazterbideak garbi mantendu behar dirala, eta gero, apurka-apurka, zirkuitu alternatiboak ereigi beharko litzatekezala, gero eta luzeagoak, herrikerri herri, Castelló aldean egin daben moduan. Modu berean, AZEko ordezkariak bidegorri gehiago eta bazterbide zabala-goak egitearen beharra aitatu dau. Halanda be, batzuk ez dabe uste

horregaz nahikoa danik. "Inportantea da errespetua eta hezkuntza. Umetatik ikasi behar dogu errepidean danona dala, eta gidariak barruratu egin behar dabe errespetu jokatu behar dabela kaminoan. Kotxean ezin dogu mugikorra erabili, adibidez, arreta bidean mantendu behar dogulako, gure hutsegite txiki batek beste baten bizitza ebagi leikelako", adierazo dau, saminduta, Julen Zubero txirrindulariak.

PELOTEA

Izei Gomez txapeldun

Erredakzioa

Bizkaiko trinkete torneoko txapela Izei Gomez Igorreko pelotariarentzat izan da. Finala abenduaren 28an jokatu zan eta Igorreko pelotari bik jokatu eben: Izei Gomez eta Iñigo Markinak.

Partidu hasikeratik Gomezek hartu eutsan aurrea Markinari eta honek ez eban jokoan asmatu. Azken emoitzea 40-15 izan zan.

Igorrekoak ligaxka estu baten ostean heldu ziran finalera.



Txirrindulariak lurretan.

Gabonetan Oparitu BEGITU-lagun!

Egizu zure laguna BEGITUREN harpidedun * Deitu 649 979 115 telefonora eta otzara bete kultura oparituko deutzazu.

- 6 liburu: Arratia Inguruko Hiztegia, Ortozik, Ametz, Peru Tximaluze, Haizea aurpegian eta Arratia aldeko kanta eta bertso zaharrak.
- Arratia, Ubide eta Zeberiko argazki zaharren postal bildumea
- Luis Iruarrizaga Abesbatzaren 25. urtemugako CDa

35€, 55€
edo 75
Euroren truke

HAU DANAU JASOKO DAU BEGITU-LAGUN BARRIAK OPARI DOTORE HAU EGIN EZKERO

indar
instalazio elektrikoak

Bildosola Industrialdea, pab. E 3-4
48142 ARTEA - BIZKAIA
t. 94 655 47 19
indarsi@indarsi.es • www.indarsi.es

begitu
anata ubide zeberio

AKEITEGIA
GAY & LORA
IGORRE

Emilio Galtia banatzaile ofiziala

Ardoak Edariak

94 673 64 02 - Industrialdea E-3 Pabeloia (Igorre)

AHOLKULARITZA:
LEGE-LAN ARLOAN

ZUZENBIDE

ZERGA ETA DIRU BOSTUTAN •
ONDASUN HIGEEZINEN
ASIGURUTAN

Saldu leku, 5. floor, 94 673 11 41 - Fax: 94 673 04 05 - 48100 GORRIO

axular
kultur ofiziala

Agirre Lehendakaria 4 - 94 673 70 92
axularke@gmail.com

ekin s.a.
CONSTRUCCIONES

LAN PUBLIKOAK
INDUSKETAK
GARRAIOK
UR SAREAK
SANEAMENTU SAREAK
BASERRI ETA BASOKO BIDEAK
PABELLOIAK
URBANIZAZIOAK

Iturritz barrera 8 - 48141 Dima (Bizkaia)
Tel: 94 631 72 57 Faxa: 94 673 95 25
e-posta: obras@construccioneseekin.com

Pinturas Arratia

Javi Morato

Tel. 628 443 992

ERRUGBIA

Urte amaiera, eskasa

Ainhoa Duñabeitia

2012a Arratiko Zekorren urtea izan dala esan daiteke, sailkapeneko lehen postuetan amaitu eben-eta aurreko denporaldia, 2012-2013 denporaldiko sailkatzea lehen postuan amaitu dabe; lehen faserako tartela lortuz.

Halanda be, azken astegoen honeek ez dira bat be onak izan. Abenduaren 22an Gemikan jokatu eben, Urbieta zelaian hain zuzen be. Zapatuan jokatu zan norgehiagokea, eguerdiko ordu bietan Gemika B taldearen aurka.

Partidu eskasa arratiarrak jokatu ebena, ikustera ohituta gagozan irudia ez eben emon; halanda be partidua altxetako gogoak ez ziran zelaian falta izan.

Nagusi izan ziran "basurdeak" eta "zekorrek" txiker geratu ziran; 29-3 izan zan azken emoitzea.

Kadeteak osteraz ez dabe jokatu, oporretan dagoz eta zekortxuak. Gabonakaz eta urte hasikereagaz batera Olentzerok ikatza ekari beharrean "suerte" on apur bat ekartea "espero dogu" 2013a aurrekoa baino hobea goa izan daiten zekortzuentzat.

FUTBOLA

Arratiak irabazi dau La Roseta zelaian

Clara Luja Azpiri

Arratia futbol taldeko gizonzkoak hamabosgarren jardunaldian, bi eta bat irabazi eben Iturrigorri "A" taldearen kontra. Partidua Bilboko la Roseta zelaian izan zan, abenduaren 23an, eta garaipen honegaz klasifikazioan gora egiten dabe taularen hamargarren postura igoz. Hurrengo partidua urtailaren bostean izango da, arrastiko lauretan, Igorreko Urbieta zelaian. 2013ko lehenengo partidua hau Galdaka "A" taldearen kontra izango da.

Euskal Ligan denporaldi itzela egiten dabilen andrazkoen taldeak, osteraz, ez dau partidua barririk jokatu Deportivo Alavesen kontra irabazi ebanetik, abenduaren bederatzian. Bere hurrengo partidua Beasain taldearen kontra izango da hilaren bostean sei t'erdietan, Igorreko Urbieta zelaian. Ordura arte bigarren postua mantenduten dabe klasifikazioan.

SAN SILBESTRE

Galapan esan eutsien agur 2012 urteari Igorren eta Lemoan

Erredakzioa

San Silbestre egunean lasterketa herriko bi egon ziran. Igorren goizean eta Lemoan arrastian. Sano partaidetza ona lasterketa bietan, galapan emoteko amaiera 2012 urteari.

Igorreko San Silbestre lasterketaren V. Edizioan, 120 lagun inguruk hartu eben parte, 60 ume eta 60 nagusi, antolatzaileen arabera. Jenteak mozorroak jantzita egin eban galapan eta umore ona izan zan nagusi. Irabazlerik ez dago lasterketa herritar honetan, baina partaideen artean otzara bat, lau Kultur Etxeko bazkide txar-



Lemoako lasterketea.

tel eta materiala zozketatu ziran.

Arrastian, barriz, Lemoan Eneko Zamalloa Memorialaren bigarren edizioa izan zan. Hemen kategoria bi dagoz: umeak 500 m. egin behar dabez galapan eta nagusiak 4 km. Berrogeta hamar umek hartu eben parte eta 150 nagusik. "Irabazleak egon badagoz, baina guk ez deusagu garrantziarik emoten, gure helburua lasterketa herrikoia egitea da eta" Aitor Erauzkin zinegotziaren esanetan. Dana dala, igaz lez, Lemoako Mikel Aurrekoetxea izan zan helburuaren lehenengo heldu zana.



Igorreko San Silbestre lasterketea.

ZIKLO-KROSA

Arratiar distirak Euskadiko Txapelketan

Julen Bilbao

Abenduaren 30ean ziklo-kroseko Euskadiko Txapelketea izan zan Ormaiztegin, arriskuz betetako zirkuito luze eta labankorreak. Aitor Hernandez ermuarra irabazle absolutua izan zan proba honetan, Arratiako kirolariak jardura polita erakutsi eben. Halan, Elite kategorian Erlantz Uriartek, hainbat itzulitan buruan joan ostean, laugarren postua eskuratu eban azkenean; eta Uriarteren atzetik sartu zan Julen Zubero, jardunaldiko sorpresa emon ebana, bosgarren eginez.

Master-50 kategorian, Opel Ibaiganeko Jose Antonio Mazairak lehia gogorra libratu eban hirugarren postu bikaina eskuratzeko. Baina Master-30ean lortu eben arratiarrak aurtengo emoitzarik onena; izan be, Mikel Epalza azpitxapeldun izan da bere kategorian. Lemoaztarra gogor dabil eta denporaldiaren amaiera biribila marraztuko ei dau.

Lehendakari Agirre, 11 - Iorri 3 - 48140 Igorre - Tel. 94 631 99 40

My Maria

erropa dendea

mediku naturalista
argaltzeko terapia
kosmetika naturala
elikagai biologikoak
zeliakontzatzat elikagaiak
esteliziarena

Zamakoia, 9 - 48960 Galdakao
94 600 21 12 - 94 600 87 56
L. Agirre, 9 - 48140 Igorre
94 631 14 39

belagorri

begitu.org

Gugaz harremanetan ipinteko
94 631 73 14
eta 649 979 112
begitu@topagunea.com

Bizkaifisios SLk bi zentro ditu

Fisioterapia Zentroa Igorre

Elexalde 4
Telefonoa 94 631 55 08

Andra Mari Klinika

Fisioterapia Zentroa
Pontzi Zabala 1. Galdakao
Tel/faxa 94 457 23 64

www.bizkaifisios.com

expert ARRATIA

E posta: expertarratia@cordevi.com
Lehendakari Agirre, 16 Tel. 94 673 60 55
48140 IGORRE (BIZKAIA) Fax 94 631 52 89

bbk

arratiako instalazioak s.l.

Berokuntza - Iturgintza - Gasa

Airekondutza sistemak - Aire zurgintza zentralizatua
Tutak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igorreko Industriales, Pol. 37
Tel. Fax 94 673 62 76
619 736 616
48140 Igorre Bizkoa

Gure Ikastetxeak

Arratiako Herri ikastetxeak 2 urteik 18ra. Euskalduna, kalitatezkoa, herrikoa

Arratia BHI
Tel.: 94 673 62 37 Faxa: 94 673 62 37 Igorre

Ikastola Arratia HI
Tel.: 94 673 90 65 Faxa: 94 673 90 65 Artea

Zubialde HI
Tel.: 94 648 06 82 Faxa: 94 648 14 84 Zeberio

I. Zubizarreta HI
Tel.: 94 673 60 22 Faxa: 94 673 60 22 Igorre

Areatzako Herri Eskola
Tel.: 94 673 90 93 Faxa: 94 673 90 93 Areatza

Zeanuri HI
Tel.: 94 673 93 33 Faxa: 94 673 93 33 Zeanuri

J.B. Eguskiza Meabe HI
Tel.: 94 631 32 28 Faxa: 631 32 28 Lemoa

Ugarana HI
Tel.: 94 631 55 32 Faxa: 94 631 92 11 Dima

Haur hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Baxilergoak, Hezkuntza zirkulak

HERRIKO BENTAK

HOSTAL

HERRIKO PLAZA,
48142 ARTEA (BIZKAIA)
Tel. 94 631 72 56

ERAKUSKETEAK

Prozesu sortzaile plastikoaren inguruko mintegiaren erakusketea Igorren

Erredakzioa

Igorreko Kultur Etxean Ines Medinak emondako Prozesu Sortzaile Plastikoaren inguruko erakusketea egon da hilaren 2ra arte. Bertan, hamar pintoreen lanak egon dira ikusgai, mintegi honetan parte hartu dabenen lanak, hain zuzen be. Egileen lanon banakako kalidadea eta, era berean, danon arteko osagarritasuna azpimarratu eban Medinak.

Partaideak Ines Medinaren irakasteko modu berezia, aitatu eben behin eta barriro. Irakatsi baino gehiago bakotzak daukanari bultzadea emoten deusala dinoe. Honen erakusgarri Igorreko Biziar-tea sortu daben alkarteak, artearen ikuspegi hau daukien beste artistak be zabalik dagoana "arte sortzaile eta librea" alkartekide baten esanetan.

Igorren, Chus Gutierrez-Solana, Lourdes de la Cal, Maite Artabe, Maite Oyanarte, Marisol Calzada, Maxima Kerr, Mercedes G. Zulueta,

Miren Bilbao, Rosa Calzada eta Txaro Otxaranen lanak osatu eben erakusketea.

Pintoreak eurak euren lana definitu dabe BEGITUrentzat.

Chus Gutierrez-Solana: "Urte bi dira lorak pintetan dodazala. Irakurketa bat baino gehiago dauka honek. Luzaro ukatua izan dodan nire feminidateari errekonozimendua da eta hori bizi garan munduari apliketan deusat. Uste dot alde femeninoa, andrazkoarena zein gizonetzkoarena izan, gitxietsituta dagoa. Alde femeninoa dinodanean sensibilitadeari, edertasunari eta abar esan gura dot. Eta uste dot munduak horren premia daukala. Hori da nire lanagaz emon gura dodana".

Lourdes de la Cal: "Erakusketa honetan erakusten dodana, zerbait organiko eta antxinakoa da eta antxinakoa ikutu horrek gorputz barruagaz zerikusia dauka. Nik barruko lora deitzean deusadan zerbaist dago, ugalketa sistemeari zerikusia daukana. Mundu bi

ikusten dodaz, gorputza barrutik, zelulak eta, eta beste dimensio bat".

Maite Artabe: "Nik beti kontzeptuak azaldu gura izaten dodaz. Batzuetan kontzeptuak personalak dira eta beste askotan personala eta zelanbait filosofikoak. Ideologikoki askotan feminismoa hartutako kontzeptuak dira. Beste batzuetan ez zuzenean horretatik, nik zeozeren gainean daukadan idea bat dira, idea baten espresio bat".

Maite Oyanarte: "Nik ez dot idea edo forma bat transmititu gura. Neu izatea baino ez. Nazan hau adierazteko artearen bidez. Ikastaroak balio izan deusta urte luzeetan neukanaz askatzeko eta nazana adierazteko".

Marisol Calzada: "Neure pintura abstraktua da, neure ustez horixe dalako egokiena gauzak adierazteko eta horixe dalako askatasun handiena emoten dauana. Pintetan dodanean, idea bat daukat buruan irudikatu gura dodana. Sano pozik nago emoitzeagaz".

Maxima Kerr: "Nire gaiak neure bizipenak eta neure esperientziak dira batez be. Nire barneko mundua ateratzen da artearen bidez. Ez dauka besterik. Barru-barruan bizi diran gauzak eta bizi diran momentuan. Nire artelanak momentuak adierazten dabez eta momentuan egindakoak dira. Ez dira denpora luzean zehar egindakoak".

Mercedes G. Zulueta: "Gai personaletan sakontzen saiatu naz. Iraganeko gaiak tratetan dodaz. Egurra landuten dot. Egur gainean pintetan nabil eta eskulturak be egin dodaz, ze formak pintatutakoan hiru dimensiotan be egitea gura izan dot. Kolore gorria oinazearen sinboloa da hemen".

Miren Bilbao: "Nik ironia landuten dot. Ironia hori tituluetan dago, berbak lotzeko moduan. Batzuetan Japoniako izenak emoten dabe eta barre batzuk egiten dodaz, eta zenbakiak dagoz...".

Rosa Calzada: (Ines Medinaren berbetan definituta). "Bere lana garbia da, sensuala, baina era berean baketsua. Gaiak zintotasunez eta lasaitasunez tratetan ditu. Gozoa eta gardena da, mobiduten dala dirudi, arina da...".

Txaro Otxaran: (Mercedes Zulueta eta Ines Medinak definituta). "Erropa gorriak egiten ditu eskulturak. Korapilatzen diran formak dira, besarkatzen diranak. Hiru dimensioak ditue eta mobimentua be badaukie. Espazioa bere kezka eta bolumen eta hutsune handiak dagoz bere pintura lanetan. Paisajek personaje bilakatzen dirala dirudi".

LEHIAKETEAK

"Zaindu gure lurra. Marroia erabili" lehiaketea

Erredakzioa



Hondakin organikoak jasoteko, edukiontzia marroia erabilten jentea animetako eta "gazteen parte hartzea bultzatzeko" Arratiako Udalen Mankomunitateak lehiaketa bat ipini dau abian. Lehen Hezkuntzakoak marrazketa eta idazlan lehiaketak izango ditue, Bigarren Hezkuntzakoak,

barriz, argazki eta tweet lehiaketetan hartu ahal dabe parte. Irabazleak, guztira, 12 tablet jasoko ditue.

Lehen Hezkuntzako kategorian marrazketa zein idazlan aurkeztu leitekez. Gure eskualdeko ingurumena hartuko dabe gai nagusizat eta hondakinen gaia edo bosgarren edukiontziaz hartu-emon zuzena daukien modu positiboan baloratu dira. Idazlanai jagokienean, edozein generotakoak izan daitekez: poesia, narrazinoa, ipuina, artikulua, eta abar.

Lanak arratia21.ariatia@bizkaia.org helbidera bialdu behar dira.

Argazkiak eta tweet-ak

Hamabi eta hamazazpi urte bitartekoak argazki edo tweet lehiaketetan hartu ahal dabe parte. Aurkeztutako argazkiak bosgarren edukiontziaz harreman zuzena euki behar dabe eta arratia21.ariatia@bizkaia.org helbidera bialdu behar dira.

Tweet lehiaketak hondakin organikoak birzikletaren abantailak azpimarratzen dituan eta herritarrek bere erabilerara bultzatuko dituan leloa sortutea dauka helburu. Tweeta @Arratia-truke helbidera bidali behar da, #5ontzia hastaga ipinita.



Txaro Otxaranen erropa gorriak egindako eskultorea.

BIZKAIE

Bizkaie! eskuko telefonoan be bai

Erredakzioa

Bizkaie! eskuko telefonoetan ikusteko web aplikazioa erabilgarri dago. Hau Bizkaie!-ren webgunean topatu daiteke. "Nabegazioa oso azkar egiten da, polito eta arin ikusten da eskuko telefono mota erabilienetan: Android (smartphone guztietatik % 55) eta iPhone-tan (% 23)" dinoe Bizkaie!-koak. Eskuko telefonoan Bizkaie! bistartzeko nabigatzailean bizkaie.biz idatzi behar da edo QR kode bat erabili.

Edukiak berberak dira sake-



lekoan nahiz PCan, eta bietatik parte hartu daiteke iruzkinak bialduz Bizkaie!-ko kanal guztietara (Bizkaie! bera, Facebook eta Twitter).

begitu
arratia ubide zerbait

hamaika ikusteko jaio gara

zorionak eta urte barri on!

2002 + 11

LEHIAKETAK

Hango eta hemengo lehiaketetako saridunak

Erredakzioa

Hainbat dira Gabonen inguruan gure herrietan antolatzen diran lehiaketak. Aikomen lehiaketetako saridunak:

Areatzako argazki lehiaketea

Udaleko kultur arloak antolatutako lehiaketa honek, herriko txoko eta paisaje politenakaz, egutegia herritarren eskura ipintea euki dau helburu.

Aurtengo gaia arkitekturea izan da eta 12 lagunek 30 bat argazki aurkeztu ditue. Irabazlea Aitor Arnaiz izan da eta sari lez Areatzako Aldamin jatetxean bi personentzako bazkari berezia eroan dau.

Abenduaren 28an, arrastian ludotekan argazki guztiak ikusgai

egon ziran. 19:00etan izan zan sari banaketea. Egun berean egutegiak salgai ipini ziran 2 eurotan. Guztira 500 egutegi atera dira.

Egutegietatik ateratako dirua Areatzako Eder mutikoari laguntzeko izango da.

Lemoako Gabonetako Haur eta Gazteen Ipuin Lehiaketea zabalik oraindino

Lemoan bizi edo ikasten dabena 18 urte baino gutxiagoak hartu daikie parte lehiaketa honetan eta lanak urtailaren 25era arte entregatu daitezke herriko liburutegian.

Sari banaketea zezeilaren 21ean izango da ludotekan. Saria material didaktikoa izango da eta parte-hartzaileek diploma bana

jasoko dabe. Saritutako ipuinak liburu baten eta Udaleko webgunean argitaratuko dira.

Sabin Intxaurregarri gutunak

Zeanuriko politikari abertzalearen heriotzearen bigarren urteurrena dala eta Zeanuri Bizi Kultur eta Garapen Elkartek antolatutako Sabin Intxaurregarri gutun lehiaketearen sariak banandu ziran abenduaren 27an.

Gutunon gaiak Sabin Intxaurregarriaren bizitzaegaz lotutakoak izan dira: abertzaletasuna, Gorbeia edo ekologia, esaterako. Hiru kategoria egon dira: 14 urtera artekoan Markel Zuluaga Egiluz zeanuriztarra izan da irabazlea eta aitamen berezia Aitor Artaraz Linaza altzustarrantzat izan da. 15 eta 17 urte bitarteko kategorian Olatz Arce Larrory dimoztarrak irabazi dau eta 18tik aurrerakoetan Zefe Ziarrusta Artabe dimoztarrak. Saridunak liburu elektronikoa bana eroan dabe etxera.

Izaskun Intxaurre, Karmele An-

goitia, Alvaro Legarreta eta Jose Ramon Arbe egon ziran epaimahaian.

Zeanuriko II. Ipuin Lehiaketea

Danok gara bardinak gai hartuta Udalak antolatutako lehiaketa honetan 15 lagunek idatzitako 11 ipuin aurkeztu ziran. Epaimahaian Mertxe Angoitia eta Alvaro Rabelli zeanuriztarrak. 11 urtetik gorako kategorian Ines Erdoziak aurkeztutako "Mari Pili eta Jose" ipuina suertatu zan irabazle. 8 urtetik

11 urtera bitarteko kategorian Lucia Gonzalezen "Danok gara berdinak" ipuinak irabazi eban eta 7 urtekoen kategorian Pablo Gutierrez, Jaime Alonso eta Julen Meabek idatzitako "Dani eta lagunak" ipuinak irabazi eban. Opari lez material didaktikoa euki eban irabazleak.

Sari banaketea abenduaren 28an Zeanuriko Kultur Etxean izan zan eta honen ostean Iñaki Lasa zeanuriztarrak ipuin batzuk irakurri ebazan.



Bartolome Deunako lastatia izan da Areatzako lehiaketan irabazle.

MUSIKEA

Kepa Junkera lagunartean

Erredakzioa

Kepa Junkerak kontzertua emon eban Areatzako The Quiet Corner tabernan abenduaren 21ean. "Lagunarteko moduan be ekarpen musikal handiak egin daitezke erakutsi eban. Kepa Junkeraren kontzertua publikoaren aurrez aurreko izan zan eta publikoak pozik eta parte hartuz erantzun eban, Junkeraren entrega eta profesionaltasuna ikustean"

azaldu deusie begiruri The Quiet Corner-eko iturriak.

Arratiako Musika Eskolako Ainhoa Bernaolak eta Kepa eta Ander Amurizak be partu hartu eban emonaldi honetan.



Kepa Junkera Areatzan.

LEHIAKETEAK

Film laburren irabazleak zehaztu dira

Erredakzioa

Abenduaren 30ean egin zan "Luzetu barik" film laburren lehiaketako sariak ekitaldia, Igorreko Kultur Etxean. Film onenaren saria *Termometroa* lanak irabazi eban; *Twist* laburak, ostera, gazteen ataleko saria hartu eban.

Epaimahaiaren lehenengo ebaztia *Hamaiketako* saritzea izan zan, bai-

na lehiaketako baldintzatariko bat zanez egileak sariak ekitaldian bertan egotea; azkenean, *Termometroa* lanak eroan eban 1.000 euroko saria.

Emonaldira hurreratu ziranak lehiaketara aurkeztutako 11 lanak ikusteko aukerea euki eban, bai eta ikusleen sarirako lana bertan bozkatuteko be. Azken hori Artean egin-dako *Egurre* lanak irabazi eban.

Udalaren kultura atal eratu-tako lehiaketa hau, orain arte Euskera Arloak antolatutako jaietako film laburren lehiaketearen segidea da. Urtero antolatzeko asmoagaz eratu da, eta ez da mugatuten, aurrekoetan lez, Arratian filmautako lanetara. Aurten goan, gazteen saria Igorren geratu da.

LIBURUTEGIA

Liburutegia zabalik Diman

Erredakzioa

Dimako liburutegiaren berrinaugurazio ekitaldia abenduaren 23an izan zan. Liburu azokea be antolatu eban herritarrek eta jente asko hurreratu zan azokara zein liburutegi barriztatua ezagutzera. 50 liburutegi txartel banandu ziran.

Arrastian, 4 eta 12 urte bitarteko berrogei urte inguru ipuin kontalaria entzuten egon ziran.

DUNBA

Lemoako eskolea Kubako "Escuela 2 de Diciembre" eskoleagaz senidetu da



Lemoako Eskolako ikasle taldea. Maider, Marta, Aroa, Noa, Ane, Lorea eta Gurene.

Lemoako eskolea

Joan zan zementuaren 21ean, eguaztenean, 18:30ean, Bilboko Kafe Antzokian ekitaldi bat egin zan, Bizkaiko hainbat eskola Kubako beste eskola batzuk senidetu dirala ospatzeko. Ekitaldi horretan, Lemoako JB Eguzkitza Meabe Ikastetxe Publikoa Kubako "Escuela 2 de Diciembre" eskoleagaz senidetu dala egiaztatu zan.

Ekitaldian, Kubako eta Bizkaiko eskoletako ordezkariak parte hartu eban. Lemoako eskolatik bost

irakasle, zazpi ikasle, alkatea eta kulturako zinegotzia egon ziran.

Hasierako hartu-emon egin eta gero, senidetzeko ekitaldian hormairudi trukaketea egin zan. Panel horretan, besteak beste, senidetzea aurrera eramateko dekalogo bat dago idatzita. Ondoren, Kubako eta Euskal Herriko hainbat abesti eta jantza entzun eta ikusteko aukerea izan genduan.

Ekintzaren helburu nagusia da herri bien arteko ezagutzea eta informazioa trukaketea. Igaz hasi ginan, eskolan egindako lan batzuk (ipuinak, olerkiak, hormairudiak, argazkiak...) Kubako Escuela 2 de Diciembre bidaliz eta bertakoak guri antzeko lanak erantzunez. Aurten be jarraitu-

teko asmoa daukagu herrialde bien ezagutza-trukaketa honeen bidez.

Amairan pintxo gozo-gozoak eta edariak ipini euskuezan.

Ze ondo pasau genduan!



AGENDEA

URTAILAK 3

AREATZA

19:30ean, postre lehiaketeta eta ostean zine proiektzioa Laminetxe Gaztetxean.

20:00etan, *Gazta zati bat* dokumentala Udal Aretoan.

BEDIA

10:00etan, Gabonetako Umeen Parkera urtekera.

IGORRE

11:30etik 13:30era eta 16:30etik 19:30era, Gabonetako Umeen Parkea. Moxogan-en tailerrak aterpean.

LEMOA

10:30ean, Gabonetako Umeen Parkera urtekera. Ludotekan.

18:30ean, *Kafe aleak* liburuaren aurkezpena Karabie Gaztetxean.

URTAILAK 4

DIMA

19:00etan, "Diman etxean gura doguz" presoen aldeko konzentrazioa Herrirak antolatuta.

IGORRE

19:30ean, Areatzako Bandak Urtebarri kontzertua Lasarte Aretoan.

LEMOA

19:30ean, berbaldia GITE-IPESen eskutik Karabie Gaztetxean.

URTAILAK 5

AREATZA

21:30ean, Txaparronen V. Edizioa Laminetxe Gaztetxean.

BEDIA

18:00etan, Erregetako Kabalgatea.

IGORRE

18:30ean, Erregetako Kabalgatea Mandoia kaletik.

LEMOA

18:30ean, Erregetako Kabalgatea udalbatetik hasita. Parrokia-katekesi taldeak antolatuta.

URTAILAK 6

IGORRE

Erregeak Arratiako egoitzetatik.

17:00etan eta 19:00etan, Txirri, Mirri eta Txiribiton Lasarte Aretoan.

URTAILAK 7

LEMOA

Hilaren 18ra arte, Sukaldaritza Sakontzen eta Photoshop ikastaroetan izen emotea. Udalbatetik.

Ludotekea ohiko ordutegian zabalduko da barriro 16:30etik 19:30era.

URTAILAK 12

AREATZA

23:00etan, Jabier Mañon umorista Bixer tabernan.

IGORRE

22:00etan zinea, *Lo imposible*.

URTAILAK 13

IGORRE

09:00etan, iturri bukuntzea auzolanean. Futbol zelaian.

17:00etan umeentzako zinea *Hotel Transilvania*.

19:30ean zinea, *Lo imposible*.

Urtailaren 5ean, zapatua, Karabie Gaztetxean Stankeik

Stankeik, Lemoa eta inguruko musikariak osotutako bandea da, jenteari bere kanta kutun bat kantetako aukerea emoten deusana zuzenean. Asko dira urtean zehar Lemoako Gaztetxera jotzen joaten diran musika taldeak, baina bat bera be ez holangoa, hau "guk guretzat egindakoa da eta!" dinoe Karabiekoak. Autogestioa eta irudimena oinarritzat hartuta, kantea aukeratu, musikariak pasau, ensaioak... eta oholtzara!!

Aurten indarbarrituta datoz "gure artistak" eta danetariko kantak entzuteko aukerea izango da, kanta lasaiak, akustikoak, ska ikutu batez jenteari jantzen ipiniko dabezanak, rock gogorra... sorpresaz beteta egongo dan gaua izango da!

IRAGARKI LABURRAK

SALDU

SALGAI

Garaje partzela salgai Lemoa erdigunean. 660 549 695 Bego.

SALGAI

Haretzeko arasa ederra salgai. 139zm zabal, 50 sakon, 193 altuera. Ikusgai dago Elexalde 10ean, Igorren. 800 €. 615 731 182.

DANERIK

BASERRIA ALOKATU GURA DOGU

Alokairuan dagoan baserri edo etxea gura dogun bikote bi gara. 685 707 176 Eider.

ETXEA ALOKATZEN DOGU

Alokairuan dagoan pisu baten bila gabizan neska arratier bi gara. Alaitz eta Maider 652 722 698.

UMEAK JAGOTEN DODAZ

Arrastiko ordutegian umeak jagon edo klase partikularrak emoteko prest nago. Kotxeduna. Interesdunak deitu zerbaki honetara 600 759 434 (Naiara)

Telefonoa.

UMEEN ZAINTZAK

Umeak esperientzia daukan neska bat zuen seme-alabak jagoteko prest dago. kotxeduna (Pili 686 728 843).

KLAUSE PARTIKULARRAK

Euskal Filologian eta Haur Hezkuntzan titulauako neska gaztea naz eta klase partikularrak emoten dodaz. Esperientziaduna. 652 744 411 (Itziar).

GARAIEA ALOKAIUAN

Garaje partzela bat alokatzen da Igorreko erdigunean. 659 395 911. Luis.

Zezer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com-era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoen ikuskizunerako.

Mari Eli Olabari (Artea)
Amaia Astondoa (Areatza)



2 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Lo imposible* filmarako.

Kepa Intxausti (Igorre)
Leyre Fernandez (Zeanuri)




3 Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,

zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 10 urte eta ehundaka lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Edertu. 2.- Berrogeta hamar erromatar. Estu. 3.- Euskera zaharrear, txakur. Sasoi. 4.- Mezako kopa itxurako ontzia. 5.- Lehenengo letrea. Nazka. Azken letrea. 6.- Boza. 7.- Ibide, urmegune. Zaunkaren onomatopeia. 8.- Zerren, pipi. Iridioa. 9.- Argia ez dana. Erdiko bokala.

GOITIK BEHERA

1.- Koloka. Hisia. 2.- Letra mutua. Nora atzizkia. Trebe. 3.- Sanskritoan, silaba sagradua. Zikindu. 4.- Gogoko. Eztainua. 5.- Harrapau. Bokala. 6.- Akats fisiko edo psikikoa. Putre. 7.- Bobidoen familiako ugaztun. Azalean ebagi.



Topau Igorreko zazpi auzuneren izenak.

A	S	T	O	L	A	P	E	T	U
R	A	I	Z	T	O	A	B	E	R
K	I	G	A	O	K	L	I	T	O
O	B	L	A	R	E	G	A	A	N
M	E	A	D	R	U	A	Z	I	R
A	R	T	E	E	R	U	K	O	A
P	A	U	K	A	B	E	O	L	A
U	O	L	A	B	A	R	R	I	T
S	A	G	E	I	B	U	R	U	U
E	N	D	U	K	A	R	I	R	A
Z	I	U	R	E	B	G	K	O	S
O	Z	D	A	B	E	I	A	D	A
S	A	N	G	E	Z	A	L	A	R
B	A	S	A	U	N	T	Z	I	T
U	M	E	T	I	K	O	L	A	Z

AKI MI KO

Igorre Menika



BIXER TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARO

ELEKTROARGI ELEKTRIZITATERA
Instalazio elektrikoak • Aberiak
Telekomunikazioak
Material elektrikoak
Juan de Ajujagerra 1 Behea 48330 Lemoa
Tfnua-Faxa 94 6312576 Mug. 647405115

Dia %
PEDRO AUTOSERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

Los Chopos
neurritza egindako armairuak
Adu. Los Chopos, 33 (Nugat) Tel.: 94 630 40 94
Esposizioa eta fabrika Lemoan
Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44
www.armariosloschopos.com

ZEKUTZE
JATETZEA
Sabino Arana, 34
48140 IGORRE - Bizkaia
Tel.: 94 631 52 83

INCOESA
Tel. 94 631 32 75
Faxa. 94 631 37 66
Bidekoetxe 18 48.390 Bedia

Umeen moda 0-20 urte
Bono Denda erabilteko aukera
Merkealdia

***KIRRU* ILEAPANDEGIA SOLARIUM**
Roberto eta Rosana
Sabino Arana, 38 bajo - 48140 IGORRE (Bizkaia)
94 631 92 00

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a 94-673-70-87
Igorre 48140 Bizkaia 609-79-40-54

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tfnua 649 86 95 36

Igorren **ARKITEKTOA**
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

abendua 17tik zezelak 17ra
sein
LEHENDAKARI AGIRRE, 23 • 946 319 296
sein.moda.5@hotmail.com

GARANTXE Autoeskola
TEORIA EUSKARAZ ZEIN ERDARAZ
Balmusak: A1, A, BTE, B
Lehendakari Agirre 31
Tfnua: 94 673 71 32
48140 IGORRE (Bizkaia)
garantxe@euskalnet.net

ARRATIA AUTOESKOLA
karneta eskaintza zein ondoz
Gorbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)
Telefonoa 94 631 36 31, Faxa 94 673 70 83
e-posta: unakua@euskalnet.net

TXIRRI, MIRRI ETA TXIRIBITON

Berrogei urte Euskal Herria alaitzen

Berrogei urteren ibilbidearen ondoren, Xabier Otaegik, Jose Ignazio Ansorenak "Piter" eta Txema Vitoriak -Txiri, Mirri eta Txiribitonek- agur esango dabe Igorren. Dana dala, Txiri, Mirri eta Txiribiton ez dira desagertuko Fernando Ruizek, Kattalin Ansorenak (Mimiren alabeak) eta Juan Mari Zalduak hartuko dabe lekukoa-eta. Milaka istorio eta pasadizo bizi izan dabez urteotan, eta umeai barrea eragin deutsee Euskal Herri osoan. Honetaz guztionetaz berba egin dau BEGtuk Piter Ansorena, Mirri-gaz.

Erredakzioa**Berrogei urteren ibilbidea egin ondoren, agur esateko Igorre aukeratu dozue. Arratia osorako ohore handia da hori. Zergaitik?**

Egia esanda, ez dogu guk aukeratu, Igorrek berak baino, ez dakigu txiripaz edo bestela. Bizkaiko Diputazioak antolatutako azken jira honetan udalaxeai egunak eskeini eta udalak aukeratu dabela uste dogu. Baina guretzat, jakin orduko, ustekabe pozgarria izan zan. Igorren izan gendualako gure saioen arteko oroitzen politenetakoa itxi deuskuna. Herri osoa frontoian, amama zaharretetik, ume txikioenera, eta giro berezia lortu zan. Urte askotxo pasau dira, baina gogoan daukagu. Baita funtzioaren amaieran oparitu euskuezan baseriko ogiak be.

Zein izan da zuon arrakastearen sekretua? Izenak nondik sortu ziran?

Euskeraz egiteak arrakasta berezia emoten dau: ez da jentrik erotzen danik kalean ikusten zaituenean (eskerrak!), ez dau zure irudiak publizitaderako balio (eskerrak!), ez zara diruz aberasten (hau be —zergaitik ez?— eskerrak!). Baina jente askoren bihotzaren muineraino iisten zara. Herri xehearengandik hur ibili gara eta samurtasunez aberastu gara. Nondik etori da arrakasta hori? Idearik be ez, hori kritikoak esan beharko dabe. Guapoak garalako ez behintzat.

Gure lehen izenak —Kixki ta Mixki ta Kaxkamelon— zozketetarako haur abesti batetik hartu genduzan. Kaxkamelon egiten ebanak itean, paralelismoz asmatu genduzan hiru honeek. Euskerazko izen xelebreak sortzeako tradizio luze bateri segida emon eutsien eta ondo funtzionau dabe.

Euskeraz egiten dauan lehenengo pailazo taldea izan zarie. Zelakoa zan zuen hasierako sasoi ha?

Halaxe da. Eta, gu sortu ondoren be, urteak pasau ziran beste talde batzuk abiatu artean. Geuk promozionau genduzan batzuk, baina ez eben jarraipenik izaten. Hamahiru urtez heriz-heri ibili ondoren (geure boltsikoetarako xentimorik kobrau barik,

bide batez dinogu) Euskal Telebistan gure programak emitiduten hasi ziran, orduantxe hasi ziran beste talde gehiago antolatzen. Metxa biztu genduan. Gaur egun moltozoa dago.

Hasikera ha sasoiakaz egokitu-takoa. Xentimorik ez, euskeraz egiten zan guztiak oztopoak topetan zituan eta guk be holakoak ugari topau genduzan. Baina umorea eta kemena bagenduan, adiskide franko (Franco eta Francozaleak aldiz ez adiskide), eta lortu genduan gure asmoa aurrera ateratzea. Gitxi egoan, baina estima handiz hartzean eban euskal jentiek egiten genduan ahalegina. Poliziagaz eta erakunde ofizialakaz hamaika liskar izan genduan, hala be, pozik gogoratzen doguz sasoi hareek.

Gauzak asko aldatu dira 40 urteotan. Ze panorama dago gaur egun? Zer egin beharko deusie aurre Txiri, Mirri eta Txiribiton juniorrak?

Laster baten eurak izango dira Txiri, Mirri eta Txiribiton, junior barik. Gu ez gara onenak zelako inguru topetan daben esateko, geure belaunaldiaren begiralekutik ikusten dogulako egungo egoera. Baina nahas-mahas gehiago dagoala eta gehiegikeriaren garaietan bizi garala konturatuteko ez da gazte izan behar.

Guk ixten deutseguz personaje mamitu batzuk, orain arte ondo funtzionau dabenak eta, gure ustez, ederto funtzionetan jarraitu daikienak. Baina, hortik aurrera, eurak dira gazteak eta euren moduetara egokitu beharko dabez.

Zailtasun bereziak be izango ditue. Guk zorte handia izan genduan aitzindariak izaten. Besterik ez egoenez gugaz konformetan ziran. Euskal Telebista sortu zanean be, ez egoan besterik eta guri deitu euskuen. Egun euskeraz haurrentzako hamaika mila eskeintza dagoz. Eta giro komertziala be barruraino sartu da horretan. Ez da erreza izango ur horretan uger egitea.

Txiri, Mirri eta Txiribiton juniorrak seniorren zer daukie antzeko eta zer desbardin? Esate baterako, Txiri jakintsua eta azkarra da, Mirri bihurria eta**zirikatzailea eta Txiribiton "ogi zati bat". Juniorrak be nortasun bardina izango dabe?**

Hasiera honetan geure igoal-igoalak dira, baina gazteagoak. Hemendik aurrera ibilbide bari bateri ekingo deusie eta auskalo zer gertatzen dan. Baina hiru pailazoan arteko nortasun banaketa hori, dramatizazio lanerako unibertsala eta eraginkorra dala uste dogu. Hoberik aurkitu ezean, hobe dabe horrela jarraitu.

Juniorrak be, Txiri, Mirri eta Txiribitonek transmitiduten daben adiskidetasunaren balioa transmitiduko dabe?

Hortxe izan da gure ezaugarri nagusietako bat: hiru lagun, beti alkarre-gaz, beti liskarretan eta ikamiketan, baina errailetako loturea daukienak. Adiskidetasuna balio handia da bizitzan, guretzat be holan izan da geure bizitzetan eta gura barik atera jaku hori. Bestela balore asko transmitiduten dira, ahal dala oharkabean. Haurrentzako emonkizunetan gero eta gehiago egiten dira pedagogiko eta didaktiko izan gura dabenak, eta hori aldarikatzen dabenak. Benetan holakoak diran begiratu beharko litzateke. Seme-alabak gurasoakandik, lagunakandik, irakasleakandik ikasten dabe ez sermoian esaten deutseena, euren eguneroko jardunean erakusten deutseena baino. Honegaz bardintsu. Zelan izan daiteke pedagogiko hauraren konzentraziorako doaia estimuletan ez dauan ikuskizuna? Edo megafonia bolumen izugarria erabiltzen dauana?

Gure balioak honeek izan dira: propaganda gitxi eta jardun serioa; kalidadea komunikazioan eta errespetua; independentzia ideologikoa eta agintzen dauanari, bada-epada be, egurra emotea... Espero dogu gure ondorengoak be horretan mantendutea, behar-beharrezkoa dalako egungo garaietan.

Urte honetako guztietako zein ikuskizun da zuen kutuna?

Ezin bat esan, hainbeste izan dira eta. Orain gitxi, fans batek ipini ditu gure saio zahar askotxo youtuben eta loturak bidali euskuzan. Hasi gara ikusten eta harrituta geratu gara: *Pantera Beltza*, *Paxistein*, *Melokotonia*, *Xaguxarroski*... Guretzat danen oroitzenak atseginak dira. Eta telebistan be programak zientzako kontetako moduan burutu doguz. Kontuan hartu telebistan gainera ez doguzala soilik pailazo taldearen programak egin, beste batzuk be geuk sortu eta zuzendutakoak dirala: Funtzioa, Balinda, Txiskola, Sikofonia... Bakotzak izan dau bere alderdi

ederra baita bere koskak be.

Down sindromea daukien personak hartu-emon oso atsegina izan dogu hasikeratik eta, eurekaz antolatutako saioak eta programak barrubaruan doguz. "Zergatik begiratzen ote nauzu?" abestia eskeini geuntsen *Barre Egin* diskoan. Oraindino, ha entzutean, oilo ipurdia ipinten jaku. Araba pabiloian egin genduan 8000 haurrentzako jaialdi erraldoia be gomutagarria da. Aita Menni erietxean egon ginanean, Saharan, Ameriketant... Bizkaian egin doguzan jirak gogoangariak gertatzen jakuz... Tira, oraindino memoria ona daukagu eta ia danaz daukagu oroitzen ona.

Zein izan da sasoi latzena eta zein gozoena? Zergaitik?

Kixki ta Mixki ta Kaxkamelon ginanean izan genduan gure historia koskorreko porrot bakarra. Zezen plazan izan zan eta ia ez egoan haumik, danak helduak eta nahikoa mozkortuta gehientsuenak. Hareek zezenak ateratzea gura eben. Batek Kaxkameloneri besotik heldu eta holan bota eutsan: "*¡A ver cuándo acabáis, hijos de puta!*". Dana dala, saioa amaitu egin genduan.

Bestelako gertakariak izan dira, taldeko inoren desgrazia handiak tarteko, danak triste eta gogo barik, baina hala be publiko aurrera atera eta geure onenak emoten saiatu gara beti.

Gurea, lan gogotsu eta arduratsu baten historia da: berrogei urte Euskal Herria alaitzeko eta barrearen bidean ibiltzen irakasteko ahaleginean. Pozik gagoz.

Umeentzako ikuskizunen historian bakarrik ez, euskalgintzan be ohorezko lekua daukie Txiri, Mirri eta Txiribitonek. Euskaldunon Egunkariaren sorreran, esaterako, garrantzia handiko lana egin zenuen.

Egia da Euskaldunon Egunkariaren sorreran lan egitea egokitu jakula. Joxe Miel Zumalabe adiskideak laguntza eskatu euskun, iada oso gaisorik egoanean: bere gogoan zan jaialdi handi bat eratzea euskaldun jentearengan euskerazko egunkari baten beharra sustraitzeko eta hasikerako bultzadea emoteko bideratzen ari zan asmoari. Sasoi haretan Joseba Arregi zan Kultur Kontseilaria Eusko Jaurilaritzan eta guztiz aurka egoan. Guk Jose Mielen asmoari baietza emon geuntsan eta Anoetako Belodromoan antolatu genduan jaialdi erraldoia: 15.000 persona alkartu ziran "Egunkaria aurrera" kantetan. Horren ordain gaiztoa izan genduan. Handik hamabost egunetara Euskal Telebistak gugaz zituan

hartu-emonak apurtu eta bi urtez izan ginan programarik bat be egin barik. Euskalgintzan be mixeriak dagoz noski eta Egunkariaren aldetik eta geroago Berriaren aldetik erantzuna ez da horren proportzinoan etori. Baina bizitza zelangoa dan ezagutzeko balio izan deusku.

Gure helburua hasi ginanean euskerazko dibersinoa bultzatzea izan zan. Zeozer egin dogulakoan gagoz.

Zuzeneko ikuskizunak, telebista, hogeiko disko baino gehiago, bideo pilo, jolasak, jostailuak, marrazki bizidunak... Txiri, Mirri eta Txiribiton marka bat da, ezta?

Gure irudiakaz eta izenekaz produktu asko argitaratu dira. Ondo ikusi genduan eskasia egoan euskerazko alorrean horreek zabaltzea. Dana dala, horrek danak badauka alderdi bat non ez garan inoz lar sartu, salmentarena alegia. Ziur asko ez dakigulako eta ez jakulako gusetan. Hori beti profesionalen eskuetan itxi izan dogu, baina saiatu gara danetan kalidadea egon daiten kontroletan.

Zelango jubilaizino izango dabe Txiri, Mirri eta Txiribitonek? Zer egingo dabe jubilaue ondoren?

Txiri, Mirri eta Txiribiton ez dira erretirauko, alderantziz, gaztetu egingo dira: aurrerantzean Fernando, Kattalin eta Juanmaren gorputzetan ibiliko dira-eta. Xabier, Piter eta Txema erretirauko dira. Eta espero daigun erretiro ona izatea. Txemak urte batzuk badaroz lanean erretiroa hartuta. Beste bioi oraindino urte batzuk geratzen jakuz hori gertatzeko.

Inoz edo behin, gogoak baiezkoa emoten bedeusku eta inork konbentziduten bagaitu, akaso zerbaist egingo dogu antzetzoki gainean. Bestela eguneroko jardueran pailazoarena egiten jarraituko dogu, adiskideen artean, familian eta soziedadean. Bestetik hamaika saltsatan ibiltzen gara eta aspertzeko aukerarik ez dogu izango. **Zorionak eta eskerrik asko 40 urte honeetan egindako lanagaitik.**

Benetan "zorionak" kolektibo eta erraldoi baten antzekoa gertatzen ari jaku azken txanpa hau. Askoren eskertza jasoten gabiz eta errematea ipinteko burutzen ari garan jira hau lujuzkoa da: saio asko eta danak antzokietan. Gainera aukeratu doguz aspaldiko esketxak, gaurkotuta jakina, baina oroitzen gagoz beteak.

Urtaileko 6an Euskal Herriari oparitxo bat ekariko deusie Errege Magoak: guk hirurok euskal jentea bakean itxiko dogu behingoz. Ez, ordea, bihotzeko eskerrak emon barik. Ez adionk.

